

Tolosako Ekinbide Etxeak **Tolosako 37. Abesbatza Lehiaketaren** eremuan lehiaketa honen deialdia egiten du ondorengo oinarrien arabera:

DATAK

Urriaren 28tik Azaroak 1era

Lehiaketa fasea

Azaroak 1

Amaiera saioa, sail guztietan sarituak izan diren abesbatzen **partaidetza behartuarekin**.

PARTAIDEAK

1. Lehiaketa honetan gutxienez 20 abeslariz eta gehienez 40 abeslariz osatutako abesbatzek parte hartu ahal izango dute. Abesbatzak bakarrik zaletuez osaturik egongo dira. Dena den, zaletu izendapena ez dagokie Abesbatzen zuzendariei.

2. Partaideek Lehiaketak irauten duen denbora guztian bertan egon behar dute eta eskualdean antolatzen diren "a capella" kontzertuetan lagundu behar dute.

SAILAK ETA EGITARAUA

3. Abesbatzak ondorengo Sailetan parte hartzera behartuta daude:

- a) I. Saila: EUSKAL ABESTIA ETA FOLKLOREA
- b) II. Saila: POLIFONIA

4. I. SAILA - EUSKAL ABESTIA ETA FOLKLOREA

- a) Gai behartua: "**KITOLIS**" Luis Aranbururena (1949).
- b) **Euskal inspirazio herrikoieko** eta euskal testua daraman lan bat.
- c) **IZAERA HERRIKOIEKO** Abesbatzaren herrialdeko Folkloreko lanak. Hala nahi bada, instrumentu herrikoiak erabil daitezke.

Aurkeztzen den egitarauak (gai behartua barne) musikak benetan irauten duen denborari dagokionez, gutxienez 15 minutuko eta gehienez 18 minutuko iraupena izango du. Danbora hauek errespetatzen ez dituen abesbatzak 15. artikuluan agertzen den arabera zigorra jasoko du.

5. II SAILA - POLIFONIA

- a) Gai behartua: "**JESU DULCIS MEMORIA** ", Hilarion Eslavarena (1807-1888)
- b) 1800 baino lehen konposatutako lan bat.
- c) 1801 eta 1980 artean konposatutako lan bat.
- d) 1980 ondoren konposatutako lan bat.

Aurkeztutako egitarauak, musikak benetan irauten duen denborari dagokionez, gutxienez 15 minutu eta gehienez 18 minutu irau beharko ditu. Denbora hauek errespetatzen ez dituen abesbatza 15. artikuluan arabera zigortua izango da.

- Gehienez 18 minutu arteraino beste lanak modu librean aukeratu ahal izango dira.
- "c" ataleko edo "d" ataleko edozein lan derrigorrez pianoarekin abestu beharko da. Egitarauaren beste lan guztiak "a capella" abestu beharko dira erabat, eta instrumentu melodiko edo perkusiozkoaren erabilpena erabat debekaturik dago.
- Lan bakar batek ezingo du aukeratu diren abesti guztien iraupenaren erdia baino gehiago izan. Gutxienez horietako bat abesbatzaren herrialdeko egile batena izango da.

- Abestiak estilo eta izaera desberdinekoak eta kontrastatuak izatea gomendatzen da.

SARIAK

6. Bi sailetarako ondorengo sariak banatuko dira:
1. **Saria:** Urrezko garaikurra eta 1000 EURO
 2. **Saria:** Zilarrezko garaikurra eta 750 EURO
 3. **Saria:** Bronzitezko garaikurra eta 500 EURO

ANTOLATZAILEEN LAGUNTZA

7. Desplazamenduko gastu gisa, Antolatzaileek ondorengo kopuruak ordainduko dituzte, beraien herrialdeetatik Tolosaraino abesbatza bakoitzak duen distantziaren arabera:

240 EURO 50 kilometro baino gutxiagoko distantzitarako.
250 EURO 50 eta 125 kilometroko distantzietarako.

125 kilometro baino gehiago egin behar duten abesbatzen kasuan, Antolatzaileak egonaldiko (ohea eta otorduak) gastuetaz arduratuko dira urriaren 28ko gauetik hasi eta azaroak 1eko bazkariraino.

IZENEMATEAK

8. Lehiaketa honetan parte hartzeko izenemate epea zabalik geratzen da eta **2005ko maiatzaren 15ean** amaituko da.

IZENEMATE ORRIA ondorengo helbidera bidali beharko da:

**Tolosako Ekinbide Etxea,
100 Posta Kutxatila
20400 TOLOSA.**

Lehen aipatutako Izenemate Boletina erabat betetzen ez den bitartean izenemateak ez du baliorik izango.

9. Abestiak zuzendari bakoitzak nahi duen ordenean abestu ahal izango dira, orden hori **Antolatzaileei jakinarazi beharko zaie 2005ko irailaren 15a baino lehen**, eta ondoren egiten diren aldaketak ez dira onartuak izango.

10. Sarituak izan diren abesbatzak Amaiera Saioan egotera eta parte hartzera behartuak daude, bere iraupena azaroak 1eko 15ak artekoa izango da gutxi gora-behera.

EPAIMAHAIA ETA ERABAKIA

11. Epaimahaia herrialde desberdinetako musika munduko zazpi pertsona ezagunek osatuko dute eta beraien izenak lehiaketa hasi baino hilabete lehenago ezagutzera emango dira.

12. Epaimahaikideek ondorengo ezaugarrien arabera epaituko dute:

- Espresio eta tinbrearen aberastasuna
- Formulazio musikalganako errespetua.
- Aurkezten den egitarauaren aniztasuna eta kalitatea.

13. Epaimahaikide bakoitzak abesbatza bakoitzaren emanaldi osoa 100 puntura arte puntuatuko du. Emandako puntuazio altuena eta baxuena kenduko dira, beste Epaimahaikideen puntuazioen baturaren bidez azkeneko puntuaketa lortu arte.

14. Epaimahaiak, aho batez, ondorengo portzentaiak gutxienez lortu ez dituzten abesbatzei sariak ez emateko gaitasuna du:

- Lehenengo sariarentzat puntu guztietatik %85a.
- Bigarren sariarentzat puntu guztietatik %80a.
- Hirugarren sariarentzat puntu guztietatik %75a.

15. Zehazten den mugatik kanpoko minutu bakoitzagatik zigorra 4 puntukoa izango da.

16. **Amaierako Saioak** sailkapenerako ez du punturik emango.

17. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta jakitera emango da **Amaiera Saioan**.

18. Lortutako sailkapena eta puntuazioak abesbatza partaide guztiei bidaliko zaizkie.

AZKEN XEDAPENAK

19. Antolatzaileek Lehiaketan abesten diren lanak diskoan argitaratu eta bideoan graba ahal izango dituzte, horregatik abesbatzek ezingo dituzte interpretazio edo irudi eskubideak eskatu.

20. Antolatzaileek oinarri hauen interpretazioari buruz sor daitezkeen zalantzak argituko dituzte eta komenigarria balitz, aldatzeko eskubidea izango dute.

21. **TOLOSAKO 37. ABESBATZA LEHIAKETAN** parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar ondorio gisa.